

KANALAK

Gure produktuak, kaptaxan aterkiak, hainbat kanalen laguntza dauka:

- Arlo teknologikoari begira, internet bidezko salmentak egiten ditugu. Web Orriaren bidez produktuak eskuratu dezakete gure bezeroek. Web Gunearen izena KaptaxanOfiziala da. Bertan ere produktuari buruzko aholkuak eta informazioa eskaintzen dizkiegu bezeroei (aterkiaren modeloak eta koloreak adibidez). Bezeroaren kondizioak jakinda egokiena proposatuko diogu. Web Orria modernoa eta erabiltzeko erraza da. Adin handiko jendea edo teknologian adituak ez diren pertsonak erraz erabili izateko.



- Kanal zuzenekoa da gure enpresa, guk egiten ditugu lanaren zati guztiak. Lehenengo denda fisikoa, Hondarribian irekiko dugu. Enpresako kideak izango gara dendan lan egiten dutenak. Enpresaren sortzaileen bizilekua dugu eta bertan komertzio txiki moduan hasteko leku egokia da. Gure ezagunen laguntzarekin batera beste lekuetara garatzeko behar dugun babesa eta motibazioa jasotzea iango da gure nahia. Dendak hurrengo baliabideak eskaintzen ditu:

1. Aterki gama guztiak ikusi.
2. Produktuak pertsonalizatzeko aukera.
3. Aterkiak probatzea eta egokia dena aukeratzea.



- Denda hau ondo baldin badoa, hurrengo pausoa beste herrialdeetara garatzea da gure intentzioa. Hau aurrera eramateko kapital handia lortu izan beharko dugu. Hondarribiko dendak ondo funtzionatzen badu hasiko ginateke proiektu hau aurrera eramaten. Lehenik Donostian irekiko genuke bigarren denda fisikoa. Bertako dendan lehen langileak ipiniko genituzke ere. Hiru langile kontratatzeko helburua izango genuke. Hondarribian, aldiz sortzaileak jarraituko dugu bertan lanean. Donostiako denda eta Hondarribiko denda tamaina berbera izango dute. Hurrengo pausoa Bilbo izango litzateke. Handiagoa izango da bertako denda eta 5 langile arituko dira. Azken pausoa Espainia osora garatzea izango litzateke, hau da, Madrilera, Bartzelonara...



Hau dena ondo funtzionatzeko, baliabide fisikoak adostu beharko ditugu. Lehenik eta behin, prezio lehiakor bat adostu beharko dugu. Horretarako, 17€ balio duen aterki berezia da. Aterki arrunta bat baino gehiago balio du, haietaz bereizten delako. Bereizketa lonan datza gehienbat.

Bigarren pausua, bidalketa-politika erakargarri bat zehaztu beharko dugu:

- 30€ baino gehiagoko erosketa baldin bada, bidalketa-gastuak dohainik aterako dira.
- Bidalketa arrunta (aterki kopuruaren arabera) lau egunetan iritsiko da. Bada ere beste bidalketa mota bat, emergentzia bidalketa. Hau, 24-48h iritsiko da, baina horretarako 6€ gehiago gehituko genitzeko bidalketa kostuari.
- Itzulketak egiteko, Web Orrian badago eremu bat "ITZULPENAK" jartzen duena. Bertan abisatuz eta datu egokiak jarriz, hau da, zergatik itzuli nahi duzun produktua eta bezeroaren informazio pertsonala, etxera langileak iritsiko dira produktua hartzera. Dendetatik gertu bizi badira, bertan egin dezakete itzulpena. Produktu berriak eskatzeko, beste eskaintza berri bat egin beharko lukete.
- Kontaktuan egongo gara beti erosleekin, hau da, entrega bat beranduegi edo gaizki egin denean, haiekin kontaktuan jarriko gara. Eskaintza egin bezain ahala, eskaintzaren egoera (produkuta prestatzen ari den, bidean dagoen edo entregatuta dagoen) mezuen bitartez bidaliko diegu. Gainera, produkuta kondizio txarretan iritsi bada, berehala aplikazioaren bitartez bezeroekin kontaktuan jarriko ginateke eta arazoa konponduko genuke.

Web Orrialdean agertuko den informazioa da.